

eIkarizketa



V. Luzuriaga
Usurbilgo Lantegia

Nekane Aramendi
V.Luzuriaga-Usurbil
Euskara planeko koordinatzailea

“Iniziatiba Zuzendaritzarena izan da”

❖ Zein da enpresako zuzendaritzaren inplikazioa ?

• Plana aurrera eramateko inizatiba eta azken erabakia Zuzendaritzarena izan da, batez ere Zuzendari Nagusiarena. Euskara Batzordean zuzendari nagusia, Ekoizpen eta Giza Kudeaketa-Sistemak arloetakoak eta Enpresa Batzorde eta Kontseilu Sozialeko ordezkariak parte hartzen dute. Azken bi organo horien inplikazioa oso garrantzitsua da, langile guztien ordezkari diren aldetik. Azken finean, euskara planean sartzeak eta jarritako helburuak lortzeak, satisfakzio bat ekartzen du, eta horrek kolektiboa indartzen du.

❖ Nola txertatu duzue euskara plana enpresako antolakuntza orokorrean?

• Enpresako urteroko gestio planean txertatu dugu eta enpresako beste helburuei jarraipen, deskargu eta neurketa egiteko sistema edo metodo berbera aplikatzen diogu Euskara Planeko helburuei.

“Motibazioa lortzeko etengabe egin behar da lan”

❖ Zuen euskara planak ibilbide motza izan du baina zein da orain arteko ibilbide horren zure balorazioa?

• Poliki goaz, eta gainera, azkarrago ezin garela joan iruditzen zait. Lan mundua osatzen duten ahozko eta idatzizko komunikazioak eraldatzea urte gutxi batzuetan, ezinezkoa da. Planaren komunikazioa eta motibazioa lortzeko etengabeko lana dugu denok, baita inplikatuena gaudenok ere.

❖ Zergatik erabaki zuen V. LUZURIAGA-USURBILek euskara planari ekitea?

• Fagor Ederlan Taldean gaude eta Ederlan kooperatiban azken 8 urte hauetan martxan dagoen euskara plana talde osoaren enpresa partaidetuetara zabaltzen ari da. Bestalde, arrazoi naturalak ere badira, langileen berritze bat ematen ari da V. Luzuriaga-Usurbilen. Gazte euskaldun asko sartzen ari da eta inkesta baten bidez jasotako informazioak langileon jarrera euskararen erabilera sustatzearen aurrean oso positiboa dela esan digu .

motzean

LAN MUNDUAN EUSKARA BULTZATZEKO
**Eusko Jaurlaritzak sindikatu
nagusiekin bilerak egin ditu**

Lan munduko eragile guztien artean euskararen erabilerrari behin betiko bultzada eman nahian, Eusko Jaurlaritzak bilerak egin ditu sindikatu nagusiekin eta aurki enpresarien elkarteekin egingo ditu.



PLAN DE BURUNTZALDEA
**Las subvenciones públicas a los
planes de euskera llegan a los 2/3 del
costo de consultoría**

2/3

SUBVENCIONES

Los ayuntamientos de Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil subvencionan el diseño e implementación del plan de euskera y, junto con las ayudas del Gobierno Vasco, la financiación pública llega a cubrir los 2/3 del costo de consultoría lingüística.

Zer da...?



Lana euskaraz!

Hizkuntza eskubideak

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 47., 48., 50. eta 51. artikuluen arabera, pertsona orok du lana bere hizkuntzan egiteko eskubidea baita nomina, kontratuak, faktura, bestelako inprimakiak eta zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea ere. Euskara planetan eskubide horiek guztiak bete daitezten saiatzen gara, pausoak pixkanaka emanez.